

30 miloi gizarajo ahaztuta

Russell Tribunalak bere IV Biltzarrea amaitu du Rotterdam-en joan den Azaroaren 30-an, astebetez Ameriketako 30 miloi indioen gorabeherak aztertu ondoren.

Oihartzunik ez, jakina: ez-kertar «ofizial»-en programetan eta liburu klasikoetan indioak ez baitira aipatu ere egiten; edo-ta, aipatzekotan, «aurrerapena»-ren hildoan «gainditu» beharrak diren «fase» zoritxarrekoak baizik ez biatira... Guk, europarrok, «aurrerapen» horren branka gisa, hor erakuts ditzakegu, harro-harro, geure poluzioa, geure hiri kupidagabeak, geure stalinismoak eta hitlerismoak, gure zirko politikoak, geure... «modeloak». Bai, jakina: gu eredu aratzak baikara, geroaren inspirazio-iturri oparoa, zibilizazioen Alfa eta Omega...

Oihartzunik ez, horretara. Ameriketako indioak? Bai? Oraindik ba ahal dago horrelakorik? Hogeita-hamar miloi benetan?

Eta kasurik ez.

Jakina: Amerika guztiko indioak joan dira Rotterdam-era. Baina Ameriketako gobernu BATEK ERE ez du erantzun. Russell tribunalak, horretara, USA-ko, Canada-ko, Guatemala-ko, Peru-ko Brasil-go, eta abarretako, gobernuetatik AT ikertu ditu indioen arazoak: alegia, indio horiek Ameriketakoak izan beharrean, Marte-koak balira bezala.

Indioen izenean joan direnek, halere, segurtasun-neurriak hartu dituzte. Joateko baimena ukatu zaie batzuri; eta beste batzuk, berriz, isilpean iritsita, aur-

TXILLARDEGI

pegiak mozorro batez estalirik egin dituzte beren deklarazioak. Guatemala-ko «Kitxe»-tarren izenean mintzatu diren gizasemea eta emakumeak, aurpegia erakutsi gabe salatu dute «zibilizatu» azkeneko ekintza; joan den Urtarrilaren 31-an, indioen arteko 40 buruzagi BIZIRIK ERRETZEA, (Jakina denez, herri hau bitan zatitua dago gaur, parte bat Guatemalan eta beste bat Mexikon bizi delarik).

Oraindik ez bide da zahbaldu Robert Jaulin irakasleak, eta gainerako biltzarkideek, Biltzarrearen ondoren argitara duten Txostena. Baina ikara eta asaldua pizten dituzten lanak ez dira falta. Horra hor, esate baterako, Jaulin-en zuzendaritzapean argitaratutako «De L'Ethnocide» liburua (10-18 sailean); edo-ta, foto ederrez horniturik, Graugnard-en «Nations indiennes, nations souveraines» liburua (F. Maspero sailean hau).

Hona hemen datu bakar bat: USA-ko indioen artean, gazte jendeak **40 aldiz** maizago egiten du bere buruaz beste, amerikarren artean baino. (Tucson-go Biltzarrean, 1972).

Aski da indioen erreserba horietatik pasatzea, «integración del indio en la comunidad nacional» hitzek zer adierazten duten ulertzeko. Kotxez joana naiz ni Biose-tik San Francisco-raino; eta goiko zelai idor haietan, ijitu

gisa, bizi diren indio multxo ezin txiroagoek, nekez iradoki dezakete europarron kontrako herra baizik. Hilketatik hilketara, eta lapurretatik lapurretara, eta dena «indioen on-beharrez» omen (?), erreserba famatu horiek LOTSA ematen dute, eta ez besterik.

Eta honi buruz, oso probe-txagarria litzateke indioen herrikide eta bizikide oso izan den Xabin Irizar aberkideak, argi eta garbi han ikusi duena salatzea. Besterik ez balitz ere, gure arteko eskema batzu errotik erauzteko bederen, Ameriketako indio horiek zapalduta daude; eta gizarte berezi gisa ERE zapalduta; bai «aurrerapena»-ren izenean, bai Jaungoikoaren izenean.

Ameriketako indio horiek, «campesino» izateaz gain, INDIO ere badirelako.

Hots, Ameriketako gobernu GUZTIEN kontra bilduak diren biltzarkideek, honela definitu dute beren Agiri nagusiko lehen-dabiziko puntua:

«Zuzenean edo zeharkabidez menpekotasunean bizi diren gizamultzoak oro, bai hilketaz fisikoaren arriskuz, bai kultur-unitate diren aldetik suntsitzekotan direnez, HERRI ZAPALDUAK dira».

Russell Tribunalak, ordea, indar moralaz besterik bere eskuan ez izanik, nekez egingo du ezer konkreturik zapaldukoherri horien alde. Aitzitik, «zibilizazioa»-ren izeneko sarraskiak eta hilketak aurrera joango dira Brasil-en, USA-n, Guatemala-n, eta gainerakoetan.

Ameriketan, bakarrik, ordea? Irakurleak erantzun beza.